

**II. ATALA**  
**BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Basauriko Udala****Basauri Bonuaren oinarri arautzaileak**

Alkateak 2023ko urtarrilaren 12ko 077/2023 dekretuaren bidez 2023ko Basauri Bonuaren oinarriak onetsi zituen. Hona hemen:

Dirulaguntza-lerroa	Kontsumorako laguntza ekonomikoak — Basauri Bonua
Aurrekontu-partida	33 4310 48099
Partidaren deskribapena	Transf. arr. familiei — Ekonomia- eta Merkataritza-Sustapena
Zenbatekoa	200.000,00 euro
Laguntza emateko prozedura	Zuzenean ematea

**1. Xedea**

Oinarri hauen xedea da «Basauri Bonua» arautzea, horren bidez udalerriko ekonomia berrakitatzeko eta bertako establezimenduetan kontsumitzea sustatzeko. Horrela, bada, Basauriko ekonomia-jardueretan egindako erosketetarako hobari bat emango da, eta horrek onura ekarriko die bai basauriarrei, bai udalerriko merkataritza- ostalaritza- edo zerbitzu-sektorean jendeari arreta ematen dieten establezimenduak dituztenei.

**2. Aplikazio-eremua**

Oinarri hauetan araututako laguntzen helburua izango da Basauriko udal mugartean kokatutako jardueretan kontsumitzea bultzatzea.

**3. Onuradunak**

Oinarri hauetan aurreikusitako laguntzak jaso ahalko dituzte jendeari arreta ematen diete merkataritza-, ostalaritza- eta zerbitzu-establezimenduek. Hain zuzen ere, Basauriko udal mugartean egon eta bertako ekonomia-jardueren eroldan alta emanda daudenak. Udalak baldintza hori betetzen dela egiaztatuko du. Horretarako, eskatzaileak baimena eman beharko dio Udalari, aurkeztuko duen eskabidean bertan.

Legezko zenbait arrazoi direla-eta Basauriko ekonomia-jardueren eroldan izena emanda ez dauden merkataritza-, ostalaritza- eta zerbitzu-establezimenduek ere laguntza hau eskatu ahalko dute, baldin eta Basauriko Udalak emandako jarduera-lizentzia badaukate.

**4. Diruz lagunduko diren zenbatekoak**

Bonu bi egongo dira, gastu-gaitasunaren arabera:

- 4 euro-ko bonuak, 6 euro-ko gastu-gaitasunarekin.
- 10 euro-ko bonuak, 15 euro-ko gastu-gaitasunarekin.

NAN, IFZ edo AIZ bakoitzeko, 60 euro-ko bonuak erosi ahalko dira, gehienez ere. Bonu horiek ezingo dira dirutan kobratu, eta beren zenbatekoa ere ez da inola ere itzuliko. Hau da: gastuak 6 euro-tik eta 15 euro-tik gorakoa izan beharko du; eta gastu-gaitasun bera edo beste bat duten bonu-konbinaketaren ondoriozko zenbateko bera edo handiagoa izan beharko du.

**5. Establezimenduak programara atxikitzea**

1. Programarekin bat egin dezakete merkataritza-, ostalaritza- edo zerbitzu-sektorean jarduera bat izan, jarraian adierazitako baldintzak bete eta zabalik dagoen establezimendu bat duten pertsona fisiko edo juridikoek, bonuak ordainbide gisa onartuta. Jarduerak bete beharreko baldintzak:

- Establezimenduak 10 langile baino gutxiago izatea, eta Basauri udalerrian egotea.



- Laguntza emateko unean, Herri Administrazioekiko zerga-zorrik ez izatea; eta, era berean, egunean egotea Gizarte Segurantzarekiko obligazioetan. Merkataritza Atalak egiaztatuko du, ofizioz, ea Basauriko Udalarekiko zerga-zorrik dagoen ala ez.
- Bete beharreko bestelako formaltasunen kalterik gabe, Basauriko Udalak aukera izango du enpresa eskatzaileak ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatze-ko beharrezko iritzitako dokumentazio gehigarria eskatzeko, edozein unetan. Ez dira aintzat hartuko ez onartuko aipatutako baldintzak betetzen ez dituzten entitateek aurkeztutako eskabideak.

## **6. Eskabideak aurkeztea**

Programari atxikitzeko interesa dutenek eskabide-orria behar bezala bete beharko dute. Inprimaki hori <https://bono.basauri.eus> webgunean eskuragarri egongo da, eta eskatzen diren dokumentuak erantsiko dituzte.

Dokumentazioa aurkeztearekin batera, joko da eskatzaileak Oinarri hauen edukia onartzen duela.

Programarekin bat egiten duten establezimenduen zerrenda Basauriko Udalaren webgunean argitaratuko da.

Eskatzailearekin harremanetan jartzeko, berak eskabidean adierazitako helbide elektronikoko edo telefono-zenbakira joko da.

## **7. Eskabideak aurkezteko epea**

Udalak finkatuko du epea, jardueren titularrek «Basauri Bona» programara atxikitzeko.

## **8. Atxikitako establezimenduen betebeharrak**

Programarekin bat egiten duten establezimenduek, atxikitzea sinatzean, honako betebeharrak hauek berenganatuko dituzte:

- Basauriko Udalarari datuetan eman daitekeen edozein aldaketaren berri ematea. Bereziki, eskatzailearen helbideari, jarduerari eta banku-datuei dagozkien datuetan emandako aldaketak.
- Publizitate-euskarriak jaso eta establezimenduan jartzea, ondo ikusten diren toki batean.
- Bezeroei faktura laburtua edo tiketa ematea, non ordaintzeko modua agertu behar den (alegia, ordainketa bonu bidez egin dela islatu behar dela).
- Establezimenduek modu aktiboan eskainiko dizkiete bonuak bezero guztiei eta saltzean edo zerbitzu ematean trukatu dituzte, harik eta establezimenduko bonuak agortzen diren arte.
- Ezin izango dituzte bonuak atxiki edo erreserbatu, ez eta zenbait artikuluko edo zerbitzuko saltzeko ere. Halaber, bonuak ezin izango dira erabili opari-bonuak saltzeko.
- Tiketaren edo justifikazio-fakturaren kopia bat gordetzea, NAN zenbakia eta erosketan trukatu ditako bonuen kopurua adierazita.
- Establezimenduak jendearentzat irekita egon beharko du, kanpainak irauten duen bitartean.
- Erosleei diruzko itzulketarik ez egitea, erosketaren eta bonuaren balioaren artean aldea badago.
- Bonu bidez eskuratutako ondasunen itzulketa-politikari dagokionez, establezimendu bakoitzak finkatuko du itzulketa horiek egiteko epe eta modua. Bonu bat edo birekin eskuratutako produktua itzuli nahi izanez gero, diruz lagundutako zenbatekoa ezingo da dirutan bueltatu: establezimendu bereko beste produktu bat eskuratu ahaliko du onuradunak, edo, bestela, dirutan itzuliko zaio hark benetan ordaindutako zenbatekoa. Bigarren kasu horretan, gainera, Udalarari bonuaren balio gabetzearen berri eman beharko zaio, eta establezimenduak jasotako kopurua bueltatu beharko du.



- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarritako printzipioak eta betebeharrak betetzea. Dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan ez da hizkera sexista erabiliko, ezta emakumeen diskriminazioa edo estereotipo sexistak erakusten duen irudirik ere. Halaber, balio hauek sustatu behar dira emakumeen irudiari dagokionez: berdintasuna, partaidetza orekatua, aniztasuna, baterako erantzukizuna eta genero rolen eta -identitateen aniztasuna.

Betebehar horiek betetko ez balira, berehala emango zaio baja programan, eta establezimenduari dagozkion bonuak birbanatu egingo dira parte hartzen duten gainerako establezimenduen artean.

### **9. Kanpainaren indarraldia**

«Basauri Bonua», ordainbide gisa, Basauriko Udal mugartean baino ezingo da erabili.

Udal arduradunek zehaztuko dute kanpainaren egutegia behar besteko aurrerapenarekin.

Programa honi atxikitako establezimenduetan bonuak trukatzeko epea hilabetekoa izango da gehienez. Hala ere, aldi hori amaituta bonu guztiak agortu ez badira, parte hartzen duten establezimendu guztietan programa nola gauzatu den aztertuko da, eta bigarren truke-aldi laburrago batean luzatu ahal izango da, beren bonuak agortu dituzten eta kanpainan jarraitzea eskatzen duten establezimenduen artean trukatzeko gabeko bonuak berriro banatzeari ekiteko.

### **10. Atxikitako establezimenduek aurkeztu beharreko justifikazioa**

basauriko Udalak establezimenduari edo jarduerari erosketetan erabilitako bonuen zenbatekoa ordaindu ahal izateko, trukatzeko bonu guztiek dagokien tiketa edo faktura izan beharko dute lotuta, NAN zenbakia eta erosketan trukatzeko bonuen kopurua adierazita. Horien zenbatekoa bonuen batura baino handiagoa edo berdina izan beharko da, dirulaguntza justifikatzeko.

Gehienez ere, 15 egun egongo dira justifikazioa egiteko, kanpaina amaitzen den datatik zenbatzen hasita.

Erosketen fakturekin batera, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute interesdunek:

- a) Gizarte Segurantzaren eta Foru Ogasunaren egiaztagiria, haiekin zorretan ez egoteari buruzkoak.  
Nahikoa izango da eskabidean dagoen erantzukizunpeko aitortpena betetzea. Dena dela, bonuak trukatzeko kanpaina amaituta, trukatzeko bonuen zenbatekoa 3.000 euro baino handiagoa bada, Gizarte Segurantzarekin eta Foru Ogasunarekin zorretan ez egoteari buruzko egiaztagiria aurkeztu beharko da (dirulaguntzei buruzko Udal Ordenantzan jaso bezalaxe), Udalak trukatzeko bonuen zenbatekoa ordaindu ahal izateko.
- b) Basauriko udal dirulaguntzak emateko Ordenantzaren 10. artikuluan ezarritako debekurik ez dagoela jasotzen duen erantzukizunpeko aitortpena, IV. eranskina-ren arabera.
- c) Eskabidean baimen espresua ematea, Udalak aukera izan dezan interesdunak aurkeztutako banku-datuak benetakoak direla. Baimen hori eman ezean, eskatzaileek banku-erakundeak sinatu eta zigilatutako egiaztagiria aurkeztu beharko dute, non adieraziko den haiek direla Basauriko Udalarari aurkeztutako banku-kontuaren titularrak.

Ez bada eskatutako dokumentazio osoa aurkezten, Basauriko Udalak errekerimendua egingo dio enpresa edo merkataritza-establezimenduari, ez-betetzea zuzen dezan edo falta dena aurkez dezan. Horretarako, hamar egun balioduneko epea emango zaio eskatzaileari, jakinarazpena jasotzen duen datatik zenbatzen hasita. Hala egiteko xeda-



tzen du Herri Administrazioen Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikulua. Epe hori igarota dokumentaziorik aurkeztu ez bada, joko da eskatzaileak uko egin duela, eta eskabidea artxibatu egingo da.

**11. Aurrekontu-kontsignazioa**

Basauriko Udalak, 2023ko ekitaldian zehar, 200.000,00 euro bideratuko ditu deialdi honetako diru-zuzkiduretar, honako partida honen kontura: 33 4310 48099 Transf. Arr. Familiei-Ekonomia- eta merkataritza-sustapena.

**12. Laguntzak ordaintzea**

Laguntza horiek ez dira itzuli behar izango.

Diruz lagundutako zenbatekoak ordainduko zaizkio programari atxikitako pertsona fisiko edo juridikoari.

**13. Aplikatzeko araudia**

Prozedura arautuko dute onetsitako Oinarri Arautzaileek beraiek; dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta hura garatzen duen Erregelamen-  
duak; eta udal dirulaguntzak emateko indarreko Ordenantzak.

**14. Onuradunei buruzko informazioaren konfidentzialtasuna**

Basauriko Udalak bere gain hartzen du laguntza hauen onuradunei buruzko informazioa programaren eremutik kanpoko xedeetarako erabilia izango ez dela bermatzeko konpromisoa.

Basaurin, 2023ko urtarrilaren 19an.—Alkatea